

A8 Autobidearen bidesarien inguruan

Ehildu alderdiak aurkeztu duen mozioa

[Código]/[Edición]

HOJA 1.

Bizkaiko Foru Aldundiak %2,5 igo du A-8 autobidearen bidesariaren prezioa Usansolo-Ermua tartean, Bizkaitik iragaiten den A8ren zati osoan ordainpekoa den tarte bakarra.

Igoera horrek eragin handia du Durangoko herritarrengan, eta horregatik protesta egin dute sarearen bitartez Kexak eta Iradokizunak taldeak bideratu duen sinadura-bilketarekin bat eginez. Idatzi honen datan 11.600 baino gehiago dira aipaturiko ekimenarekin bat egiten dutenak, durangaldeakoak gehienak.

Azpiegitura horren bidesariaren aurka herri plataforma bat eratu da, zeinak igoera horren kontrako eta berori erabiltzeagatik, durangarrei batez ere, kobratzen jarraitzearen kontrako iritzia azaltzen duen, A8 autobidea erabiltzen duten gainerako bizkaitarrentzat inolako kosturik ez duen bitartean.

Gure ustez halako igoera guztiz diskriminatzailea da durangarrentzat herrialdeko hiriburuarekin arin eta seguru komunikatzeko orduan, ordaintzera edo, bestela, batere segurua ez den eta autoz beteriko N634tik ibiltzera behartzen gaitu-eta.

Horregatik guztiagatik honakoa eskatzen diogu Udalbatzarrari:

Gainerako bizkaitarrekin alderatuz, A-8 ordaintzeak durangarrentzat suposatzen duen diskriminazioa onartzea, bi aldiz ordaintzen dugulako gauza bera.

Azpiegitura hori Durangaldeko eta Lea Artibaiko herritarrentzat, Bizkaiko beste herrialde batzuetako herritar batzuekiko diskriminatzailea ez den finantzaketa-sistema baten bitartez egitea.

Gai honetan eskuduntza duen Bizkaiko Batzar Nagusiari 3/2010 Foru Araua, A-8 autobidearen ordainketari dagokionean, alda dezala eskatzea.

Durangon, 2016ko urtarrilaren 17an.